

## ZUMALAKARREGI MUSEOAREN KUDEAKETA-POLITIKA

Zumalakarregi Museoaren misioa Euskal Herriko XIX. mendeko ezagutzarako ikerketa eta dibulgazio zentro erreferentea izatea da. Oraina ulertzeko gakoak eskaintzea bilatzen dugu, pentsamendu kritikoa eta historiaren hedapena diziplinarteko ikuspegi berritzaile batekin sustatuko duen espazio ireki eta irisgarri baten bidez.

Gure Xedean, euskal historia garaikidearen funtsezko erreferente izan nahi dugu, eta lankidetzaren bidez kultura- eta gizarte-aurrerapena bultzatu. Zentro digital berritzailea izan nahi dugu, pertsona guztiak ezagutzak sortzeko duten sarbide- eta partaidetza-eskubidea bermatuko duena.

Gure lan egiteko modua DTI ereduaren bost ardatzetan oinarritzen da: Kudeaketa, Jasangarritasuna, Irisgarritasuna, Teknologia eta Berrikuntza.

### **Kudeaketa**

Gardentasunean, eraginkortasunean eta erantzukizunean oinarritutako kudeaketa sustatzen dugu. Kultura-, hezkuntza- eta erakunde-eragileekiko lankidetzak uztartzen duena, museoak bere ingurunean duen papera indartuko duen eta gure prozesuen etengabeko hobekuntza ekarriko duen kudeaketa parte-hartzailea bultzatuz.

### **Jasangarritasuna**

Gure jarduera ikuspegi jasangarri batetik garatzen dugu, ingurumen-inpaktua minimizatuz eta baliabideen erabilera arduratsua sustatuz. Gizarte-ongizatearen eta kultura-ondarea zaintzen lagunduko duen kudeaketaren aldeko apustua egiten dugu.

### **Irisgarritasuna**

Museorako sarbide unibertsala bermatzeko lan egiten dugu, gure espazio guztietan irisgarritasun fisikoa, sensoriala, kognitiboa eta digitala etengabe hobetuz. Pertsona guztiak berdintasunean modu aktiboan gozatu eta parte hartu ahal izatea da gure helburua.

### **Teknologia**

Tresna teknologikoak erabiltzen ditugu gure lan-prozesuetan, barne-kudeaketa hobetzeko eta eskaintako zerbitzuak optimizatzeko. Antolaketa, komunikazioa eta erabiltzaileekiko harremana errazten duten soluzio digitalak erabiltzen ditugu, museoaren barruan esperientzia arinagoa, eskuragarriagoa eta efizienteagoa izan dadin lagunduz.

### **Berrikuntza**

Berrikuntza ardatz transbertsal gisa bultzatzen dugu, museoak ikasteko eta parte hartzeko modu berrietara egokitzeko helburuarekin. Gure prozesuak eta zerbitzuak etengabe hobetzea bilatzen dugu, gizartearen behar aldakorrei erantzunez.

Ormaiztegin, 2026ko apirilaren 27an



Lurdes Azpiazu Aizpiolea

Zumalakarregi Museoko koordinatzailea